



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

Bilbao, 3 de marzo de 2017

Estimado/a compañero/a:

El pasado 7 de febrero la Autoridad Vasca de la Competencia notificó al Colegio una propuesta de resolución sancionadora emitida en el marco de un expediente incoado por la organización de los servicios de asistencia jurídica gratuita (turno de oficio y guardias de asistencia).

La propuesta de resolución declara la existencia de una infracción muy grave y la realización de conductas prohibidas por la Ley de Defensa de la Competencia, por considerar que el Colegio establece barreras de acceso desproporcionadas, organiza el turno en demarcaciones territoriales y no permite la entrada a profesionales del resto del territorio nacional al que se extiende el principio de unidad de mercado.

La Junta de Gobierno ha presentado las alegaciones oportunas en tiempo y forma, remarcando que la asistencia jurídica gratuita es una función pública de rango constitucional, en la que está en juego el derecho a la tutela judicial efectiva de las personas que acreditan carecer de recursos suficientes, y argumentando que el Colegio cumple los criterios de la Ley de Asistencia Jurídica Gratuita y de la Orden del Ministerio de Justicia de 3 de junio de 1997, que establece la obligación de contar con despacho habitual o principal en el ámbito

Bilbo, 2017ko martxoak 3

Lankide estimatua:

Pasa den otsailaren 7an Lehiaren Euskal Agintaritzak Abokatuen Bazkunari zehatzeko ebazpen-proposamen bat jakinarazi zion, doako laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa dela eta (ofiziosko txanda eta laguntza guardiak).

Ebazpen-proposamenak dioenez, arau-hauste oso larria egin da eta Lehiaren defentsari buruzko Legeak debekatutako jokabideak gauzatu dira, izan ere, Bazkunak neurrigabeko sarbide trabak jartzen omen ditu, txanda lurralde-eremutan antolatzen du eta beste lurraldeetatik datozen profesionalek ez dute hor sartzerik, merkatu batasunaren printzipioa urratuz.

Gobernu Batzak alegazioak garaiz eta forman aurkeztu ditu eta doako laguntza juridikoa Konstituzioak jasotako eginkizun publikoa dela azpimarratu, doako laguntza juridikoa ematen zaielako baliabide nahikorik ez dutenei, justiziara benetan iristeko berme moduan beharrezkoa denean; horren ildotik, Bazkunak alegazioetan azpimarratu du baita ere Doako Laguntza Juridikoa arautzen duen Legean eta Justizia ministroak 1997ko ekainaren 3an emandako Aginduan ezarritako irizpidea betetzen dela, hau da, Bazkunaren eremuan eta dagokion lurralde eremuan ohiko bulegoa edo bulego



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

del Colegio y en la demarcación territorial correspondiente.

Esperamos que las razones del Colegio sean debidamente atendidas; en cualquier caso, os mantendremos puntualmente informados de la resolución que se dicte.

nagusia izatea.

Bazkunak aipatutako argudioak kontuan hartuko direla espero dugu; edozelan ere, ebazpenaren berri izan bezain pronto, informazio guztia emango dizuegu.

**ESTEBAN UMEREZ
SECRETARIO / IDAZKARIA**